

Konpromisoa kontsumo jasangarriarekin

## **EROSKI-K 3.144 TONA BAINO GEHIAGO EROSI DU JASANGARRIAREN ZIURTAGIRIA DUEN ARRINETIK 2019AN**

- Erosketa guztitik 1.880 tonak MSC zigilua zuten, eta beste 820 tonak, GLOBALG.A.P ziurtagiria
- Txikizkako lehen banaketa katea da Espainian, MSC eta GLOBALG.A.P ziurtagiriaren ikuskaritzak gainditu dituen arrain fresko jasangarria mostradorean saltzeko
- Jarduera jasangarriago bat sustatzea dago *Osasunaren eta Jasangarritasunaren alde* hartuak dituen konpromisoetan

Elorrio, 2020ko otsailaren 13a.- [EROSKI](#) aurrera doa elikagai eredu jasangarriagoaren alde hartua duen konpromisoan, eta 3.144 tona erostera iritsi da arrain jasangarri ziurtagiridunetik. Arrain ziurtagiridunaren guztizkotik, 1.880 tona [Marine Stewardship Council](#) enak dira, zeinak bermatzen baitu arraina arrantzaleku jasangarrietakoa dela, eta beste 820 tonak akuikulturako GGN ziurtagiria dute (GLOBALG.A.P. Number). Horretaz gainera, kontserben erosketetatik nabarmentzekoa da 392 tona hegaluze kainaberarekin arrantzatutak izan direla eta 51 tonak AENORen *Atun Arrantza Arduratsuaren* ziurtagiria dutela.

EROSKIk, horrela, beste behin sendotu du elikagai arduratsuen salmenta, hori baita elikadura osasungarri eta jasangarri baten oinarria, eta Zurekin eredu komertzialaren zutabe nagusia. *"Jasangarriaren ziurtagiria duen arrantza mota lekua irabazten ari da gure arrandegietan. Kontsumitzaileak bermatua du gure mahaietan arrantzaleku eta ekoizpen jasangarrietakoa izatea ekoetiketa duen arrain freskoa. EROSKIn etengabe dihardugu ingurumen eta gizarte alorretako jasangarritasun estandarrak hobetzeko balio kateko prozesu guztietan, jatorritik hasi eta dendetako operazioetaraino. [Osasunaren eta Jasangarritasunaren alde hartuak ditugun hamar konpromisoetan](#), elikadura jasangarria sustatzea da helburua"*, esan du EROSKIko Osasun eta Jasangarritasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

### **Aurrendaria bere arrandegietan jasangarriaren ziurtagiria erabiltzen**

Orain hiru urte, EROSKI bihurtu zen Espainian txikizkako lehen banaketa katea, MSC Marine Stewardship Council nazioarteko erakundearen ikuskaritza gainditu zuena; horri esker, ziurtatu ahal du bere zaintza kateko arrain freskoa arrantzaleku jasangarrietatik datorrela. EROSKIko arrandegietan, pixkanaka joan da hedatzen ziurtagiria, eta gaur egun, 342 mostradoretan darabilte sail horretako arrain freskoa; horrez gain, hori dira EROSKI taldearen zortzi plataforma logistikoak ere; bertatik banatzen du arrain fresko hori bere denda sarera.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

#### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

MSC ziurtagiriak arrantzalekua bezala ikuskatzen ditu arraina manipulatzeko prozesuan parte hartzen duten enpresak ere, eta, hortaz, bermatu egiten du egokiak direla zigilu urdina duten produktuen trazabilitatea eta zaintza kate guztiko jarduerak. Zenbait faktore hartzen ditu kontuan arrantzaleku bati jasangarriaren ziurtagiria emateko, hain justu: arrain populazioa, arrantzak habitatean duen eragina eta arrantzalekuaren kudeaketa. EROSKI MSC ziurtagiriarekin iaz erositako 1.880 tona arrainetatik honako mota hauek zeuden: antxoa, hegaluzea, abakandoa, bakailoa eta surimia.

Bestalde, orain dela bi urte, EROSKI lehen banaketa katea izan zen Espainian eta bigarrena European GLOBALG.A.P akuikulturako ziurtagiriaren ikuskaritza gainditu zuena. Ziurtagiri horrek zaintza kate osoan bermatzen du arrandegian saltzen dituen espezieak —era horretan hazitakoak— bide seguruak eta jasangarriak erabiliz ekoitzi dituztela. Iaz, EROSKI 820 tona urraburu, arrano-berrugeta, lupia, erreboilo eta izokin erosi zituen GGN ziurtagiriarekin (GLOBALG.A.P. Number).

### **Bere kontserbetan eta izoztuetan ere jasangarritasunarekin konprometituta**

Arrantza eredu jasangarriaren aldeko apustu horretan, EROSKI hitzarmen bat du kontserbako atunaren hornitzaileekin, zin egin baitute [Arrantza Jasangarriaren aldeko Nazioarteko Fundazioa](#)ren jasangarritasun printzipioen arabera hornituko direla. Goraka doa modu arduratsuenak erabilita (AAA, FAD objekturik gabe, MSC eta FIP) harrapatutako atun bolumena, eta, dagoeneko, erosten duen atunaren %30 da modu jasangarri eta arduratsuan arrantzatua. Arrantza jasangarriaren politika sinatu duten hornitzaileekin bakarrik egiten du lan EROSKI; hornitzaile horiek ez dute onartzen EBk txartel horia ezarri zaien herrialdeetatik datorren atuna; izan ere, ez dituzte betetzen Eskualde Erakundeek onartutako neurriak eta ez dute neurririk hartu legez kanpoko arrantza amaitzeko.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)